Orrilia-Mayo
3
Egubena - Jueves
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 irko. Iru ile
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.676 zenbakija

Egunekua

Langillien eguna

Joŕalak aguŕ egin dauskunaz batera, oŕilak ¡eup! esan dausku, ta geure-aŕtera etoŕi.

Joŕalaren azkenengo eguna, erdi euri, erdi ateŕi, ganora aundi bako eguna ixan zan.

Joŕalaren aguŕa oŕen ganora gitxikua ixan ba-yakun be, oŕilaren eupadea asko geyagokua etxaku ixan. Goxian eurija, atsaldian eurija; ¡egun gustijan eurija!: auxe ixan zan oŕilan lenengoko eguna.

卐 卐 卐

Egun oneri, zer dala-ta eztakit baña, "Langilien eguna" deritxo, eta zijo au dala-ta, oŕilan lenenguan, suduŕ-eŕpiñako eulija uxatuteko be etzan iñoŕ igitu, ezta txaide ta abaŕeko zikiñak garbituteko be.

Eurija, ostera, "Langilien eguna" ospatuteko biaŕeko gauzea bai-litzan, zirimiri-zirimiri jausi ta jausi egiŕen zan, eta lanik bako langile gixagaxuak, ur gazatako paŕa biguŕtuta imiñini.

Oŕilan lenenguan tximispuŕdijak be jai aŕtu eben, baŕa belbil eta enparauko zalpurdi ta abaŕek be.

Iñorantz zirkiñik egin gura ixan ebanak, bera berenez igiŕu biaŕian auŕkitzen zan. Beraz, gura ezta, be, lan egin biaŕian aurkitzen ziran, norberaren soin aztuna batera ta bestera oin soŕen ganian erabili biaŕ ixatia, lanik aztunenetariko bat da-ta.

卐 卐 卐

Begiratu dautsagun zulotik barik, beste zulo batetik begiratuta, be, langile gustijen jayeguna dala diñuen jai au, diñuen baxen jai osua eztala ikusi dogu, eŕizañak, jauzkako idixildunak eta abaŕ, iñoz baño geyago igiŕu biaŕian ixan dira-ta.

Eŕi-zañak eta "eŕi-musikerubak" be bai, oneik be lan bako langilien egunari jai-usaña emoteko, euren turutei puzka txaidiak-ziaŕ turutoska ibili biaŕa ixan dabe-ta.

Ikusi danentz, zozolistuak esan oi-daben "igualdad" ori, euren jai berezijan be ikusten eztana da.

Eta ikusi be egingo eztana ganera, batzuk jolastuteko, beste batzuk lan egin biaŕ ixatia, biaŕ-biaŕekua dalako.

Zabalbide'n

Oŕilan lenengo egunak, egun euritsuba ixan zalako-edo, Zabalbide'ko pelotalekura pelota-zale asko eruan ebazan.

Egun aretako egiŕaraba be euzko-kirol begiko onen zaliak diranentzat, aginduta neuŕira egiñikua lakoxia ixan zan: bata baño bestia edeŕaguak ziran iru jokaldi, irakuŕle.

Lenengo jokaldijan, Barakaldo ta Aŕieta neuŕtu ziran. Barakaldo'ren aldeztzaliak, Balta ta Mietza ixan ziran; Aŕieta'renak, Txertudi ta Alegria.

Oneik lau pelotarijok polito jokatu eben. Baña joko gustijetan jazo oi-dana, batek bakaŕik irabazi eban: barakaldotaŕak.

Aŕietaŕak be, baña, alegintxuba egin eben, eta Alegria'ren eskuko min eta gusti be, 17 ekuraldiraño eldu.

Bigaŕen okaldijan neuŕtu ziranak, Getxo ta Gernika ixan ziran.

Gernika'k, II Aŕien eta Pertika'taŕ Gotzon auŕkeztu ebazan. Getxo'k, Zubiaga ta Kastelanos.

Getxotaŕak pelotari onak ziran, batez be Zubiaga, baña gernikaŕak obiak zirala, lenengo ekiŕalditik erakutsi eben.

II Aŕien'ek ondiño suŕpia baltzitu barik daukanaŕen, peloteari sartada edeŕak emoten daki, ta eskeŕ-eskoyak tximistindaŕen arintasunaz igiŕubaz, auŕeko auŕkalarija itsututa nora igiŕu eztakijala iminden.

Aŕien gastiak laguna be ezeukan txaŕa. Pertika'taŕ Gotzon'ak lantzian bein, eskeŕa nun eukan ondo erausten eban-eta.

Batetik besterako alde au ta gusti be, baña, getxotaŕak, edeŕto aldeztu ziran, gernikaŕak 22'ra eldu ziran aŕtian, 12'ra eldu ziran-eta.

¡Aŕien potolua, mutiŕak, pelotari azarija da gero...!

Irugaŕen jokaldija, lenengo malako pelotarijena ixan zan.

Mala onetan neuŕtu ziran pelotarijak, gernikaŕak eta beŕmeotaŕak ixan ziran.

Gernika'k, Olazaŕ eta I Aŕien auŕkeztu ebazan. Beŕmeo'k, Goitia ta Ormaetxea.

Gernikaŕak, bikoitz ornidubagua ta sendugua zirana, asikeratik erakutsi eben. Beŕmeotaŕak be baña, garale urtetako egaŕitxubaz Zabalbideratu zirana, ezin eskutau ixan eben. Goitia antxiñako pelotari zaŕa da, ta peloteari makalka baño ezpa-da be eten barik eusten dakijana.

Goitia'ren eten bako euste au Oŕmaetxea'ren gastetasunaren kemenaz lagunduta zala, gernikaŕen nausiŕasuna beratuta garale urtetako naikua ixan ziran.

"Gura ixatia al ixatia" zala esan ebanak, egi aundija esan ebala, ementxe ikusten da. Beŕmeotaŕak irabazi egin biaŕ ebela-ta Zabalbide'ratu ziran, ba, ta irabazi egin eben.

Gernikaŕak, ostera, euren nausiŕasunari jaubetuta, arduragetuten-edo asi ziran, eta irabazi biaŕ ebezan eskuraldi askotxu galtzen.

Lenengo eskuralditik asita 21'gaŕeneraŕte, gernikaŕak, auŕetik juan ziran. Alan eta gusti be, baña, jokaldija, galdu egin eben, itxas-eŕtzera oñak bustiŕen duanari berak igaŕige izkoreak iduneraño igoten dautsan antzian, bermeotaŕak 22'gaŕen "tantura" eldu yakiezan-eta.

Gernikaŕentzat jokaldi au, lotsagaŕizko jokaldija ixan zan.

Txapel-goŕijak "5 a 20 al rojo" didaŕka ibiŕeko jokaldija ixan ba'litz, "tongua" egin ebela esango zan.

URIBIŔAŔTE'TAŔ IBON.

JEAN BARBIER
Lau Ipuin "Axular" - Tzaz

(Lapurdieraz)

2.—AXULAR ETA AITA SAINDUA

Beraz, Axular gazteena bizi zelarik, gerthatu zen Aita Saindua debruak aŕas setiatua. Haimbertzetaraino setiatua zen, non, egun batez, "oren-erdi baten buruko eginen zen bazkari batean, debrua behar baitzen Aita Sainduaz osoki jabetu". Eta, futcho, fritsik holakorik ez zakien Aita Saindu gaichoak, eta deskantsurik edeŕenean zagon hantchet, bere bazkaltiaŕen beira!...

Eŕomatik uŕun nahiz bizi zen "Axulaŕ", debrukeria horitaz jakintsun egin zen bizkitartean.

Eguerdi jotzera zoan. Bet-betan bere etchean, jauzi bat egin zuen Axulaŕek, eta goiti joan zen, bere amari eŕaiten ziola: "Ama, atheraazu eltzekaria; heldu naiz berehal berehala".

Gainerat heldu bezen lasteŕ, debru bat deitzen du bere gana; eta deitu orduko, han zuen debrua, bere aintzinean.

Paŕapataka galdegiten dio: "Eŕak, to, zenbat luze behar duk, Aita Sainduaren alderat, Eŕomarat ni eramaiteko?

—Hiru minuta.

—Sobera zaiat."

Bigaŕen debru bat galdatzen du beraz: "Eŕak, to, zembat behar duk Aita Sainduaren alderat ni eramaiteko?

—Bi minuta.

—Sobera minuta; hoa hire egitekoetara."

Hirugaŕen debru bat deithurik, galdatzen dio: "Zembat lasteŕ eramanen nauk Aita Sainduaren alde alderat?

—Zembat lasteŕ joan nahi baituk eta hala.

—Ontsa duk. Eraman nezak beraz gogoeta bat izaiteko aŕtean..."

卐 卐 卐

Eta begien hesteko aŕtean, huna gure "Axulaŕ" eta gure debrua Aita Sainduaren jauregiko athearen aintzinean.

Athean debrua geldituŕik, "Axulaŕ" bera sartzen da barnerat: "Aita Saindua ikus diteke?

—Aita Saindua?... Ez, ez; segur ezetz! Badu bertze lanik!

—Ba, bardin du ba! Lanak lantegi, zerbait gisaz, zerbait gisaz, baitezpada behar dut ikusi.

—Ezetz gizona! Aita Saindurik ez duzu egun ikusiko. Berehal berehala mahainean eman behaŕa da, kampoko andana batekin.

—Hori bera! Han hura jaŕi gabe hura nik ikusi behar!

—Eŕanen duzu nahi duzuna, bainan Aita Saindurik zuk ez duzu egun ikusiko.

—Aita Saindurik ikusiko ez badut ere, utzi behar nauzue, othoi, bazkaltiaŕen mahainaren neurtzera?

—Izaitekotz ere hori"...

Bere neuŕia eskuetan, sartzen da beraz "Axulaŕ" barne handi handi batean; eta, han, brichtakoan, mahainaren luzetasuna lehenik harturik eta gero zabaltasuna, "kurutzearen senailea" egiten du hoŕela neuŕiarekin mahain haren gainean...

Ordu berean, sekulako haŕamantzetan ioan ziren debruak oro, handik uŕun, uŕun...

Nor haŕitu eta Aita Saindua haŕitu! Guziak jakitearekin, ez zen nahi baino lasteŕago belhauniko erori, Jainkoari eskeŕen bihurtzeko...

卐 卐 卐

Jin bidez itzuli zen "Axulaŕ" etcherat...

Eta horiek oro iragan ziren "amak eltzekaria tupinetik eta mahainerat eramaiteko artean!!" Deuseri ez zen beraz ama gaichoa ohartu.

Bakaŕik, mahainean ama-semeak jaŕi zirenean, Axulaŕek eŕan zion amari:

"Ama! Mendi hoitan diren elhuŕak.

—Ba! Mendiak uŕun dituk, hauŕa. Utzatzik mendiak deskantsu; deus ez duk bardin hetarik behar gauŕ gero!

—Ez, ez, hala hala da, ama. Bainan, ban gaindi iragana bainaiz doi doia...

—Mendi horietan gaindi? Baduka burutik, muthikoa?

—Ez ama, ez batere! Nere kapusailari nahi bazinio behatu?...

—Kapusailari behatu? Zertako?

Behatu zion bizkitaŕtean, eta ikusi zuen kapusaila "elhuŕez gainerano bethea..."

Amaren haŕitzea orduan!... Eta egundaino ezin du amak aditu, "Axula" bere semea noiz eta nola izan zan elhuŕez betheak ziren mendi hetan gaindi".

(Bizkayeraz)

2.—AXULAŔ ETA AITA SANTUA

Beraz, "Axulaŕ" gazteena bizi zalarik, Aita Santua deabruak guztiz inguratuta eukitea gertau zan. Inguratuta, baña, egun baten, "ordu erdi gaŕenean egingo zan bazkari baten, debrua Aita Santuaz osoro iaubetu beaŕ izateko ginoan". Eta, kontxo, tautik olakorik ez ekian Aita Santu gaisoak, eta lasatasun edeŕenean egoan antxe, bere bazkaldaŕen begira!...

Naiz-ta Eŕomatik uŕun bizi izan "Axulaŕ", oŕaitino, deabrukeria oŕeen jakitun egin zan.

Eguerdiko amabiak jo aginean egozan. Bat-batean, "Axulaŕ"'ek, ankaŕ egin eban bere etxean, eta gorantz joan zan, bere amari esaten eutsala: "Ama, atera egizu lapikokoa; beingo-beingoan naiz etoŕi".

Gora eldu baizen lasteŕ, deabru bateri deituten dautso beregana: eta deituaz beraz, an eban deabrua, bere auŕean.

Zaŕapastaka itaunduten dautso: "Esaik, txo, zenbat asti beaŕ dok. Aita Saintuaren albora, Eŕomara ni eroateko?

—Iru minitu.

—Laŕegi yatak."

Bigaŕen deabru bateri itaunduten dautso beraz: "Esaik, txo, zenbat beaŕ dok Aita Santuaren albora ni eroateko?

—Minitu bi.

—Minitu laŕegi: oa eure zereginetara."

Irugaŕen deabru bateri dei eginez, itaunduten dautso: "Zeren arin eroango nok Aita Santuaren albo-albora?

—Euk zeren arin joan gura izan, eta arexetan.

—Ondo yagok. Eroan nagik, oŕezkero gogamen bat izateko beaŕ doan aŕtean"...

卐 卐 卐

Eta begiak isteko beaŕ dan aŕte baten, ara gure "Axulaŕ" eta gure deabrua Aita Santuaren jauregiko ate auŕean.

Deabrua atean geldituŕik, "Axulaŕ" bera baŕura saŕtuten da: "Aita Santua ikusi daiteke?

—Aita Santua?... Ez, ez; seguru ezetz! Ba-dau beste lanik!

—Bo, bardin dau bada! Lanak lantegirako, zelan edo alan, ikusi egin beaŕ dot nik ala-ta-be.

—Ezetz gizona! Aita Santurik ez dozu gauŕ ikusiko. Gesu-gesu baten maian jaŕi beaŕ da, kanpoko lagun pilo bategaz.

—Orixe berori! An a jezaŕi orduko nik a ikusi beaŕ.

—Zeuk nai dozuna esango dozu zuk, baña Aita Santurik ez dozu zuk gauŕ ikusiko.

—Aita Santurik ikusiko ez ba'dot bere, itzi egin beaŕ daustazue, aŕen, bazkaldaŕen maia neuŕtuten?

—Izatekotan bere, orixe..."

Bere neuŕia eskuetan dauala, saŕtuten da beraz Axular gela andi andi baten; eta, an, ots baten, maiaren luzerea aŕturik lenengo eta gero zabalerea, "kurtzearen señalea" egiten dau alan neuŕiaz maiaren ganean...

Ordu berean, erakusmeneko aŕantzetan joan ziran deabru guztiak, andik uŕun, uŕun...

Inor aŕitu ba'zan, Aita Santua aŕitu zan! Guztiak jakin zituzanean, gura eukean baño arinago ez zan belauniko jausi, Jaungoikoari eskeŕak biuŕteko...

卐 卐 卐

Etoŕiriko bidetik biuŕtu zan "Axulaŕ" etxera...

Eta gauza guztiok, "amak lapikokua lapikotik maira eroan bitaŕtean" igaro ziran! Ez eban, beraz, ama gaisoak ezer oaŕtu.

Oŕaitino, ama-semeak maian iezaŕi zirenean, "Axulaŕ"'ek onan esan eutsan amari:

"Ama! Mendiotan diran eduŕak!

—Ba! Mendiak uŕun dozak, seme. Itzi egizak mendiak baketan; ez dok beñipein gauŕ aetariko ezer beaŕ!

—Ez, ez, alantxe da ama. Baña, aen bauna ointe-ointxe igarota nago-ta...

—Mendi oŕeen baŕuna? Burutik egin yak, ala, mutil?

—Ez ama, ez, arean bere. Nire kapusaiari begiratu gura ba'zinegio...?

—Kapusaiari begiratu? ¿Zergaitik?"

Begiratu eutsan oŕaitino, eta kapusaia "goi-goraño" eduŕez beteta" ikusi eban...

Amaren aŕitua orduan!... Eta eguno ezin izan dau amak uleŕtu, "Axulaŕ" bere semea noiz eta zelan izan zan eduŕez beteriko mendi aen baŕuna.

Bizkayeratzalea,
GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

¿Utziko ete diogu euzkerari iltzen?

"Eta asi zan Jonas urian sartzen, bertatik egun batean ibiliaz: eta oyu egin eta esan zuan: Oraindik beŕogei egun, eta Ninive ereztua izango da."
(Jonas'en igeŕia. III. 4)

Ara emen neri izuikara eman ziran "Kepa" idazleak esandako gauza bat: "Egunero obetoago ta geyago idazten da, eta egia da euzkera idatziaren bitaŕtez, itz egiten dan euzkera garbitu ta ondu dala, baña euzkera erabiltzea gutxituaz dijua eta onela ba'goaz, euzkera, denbora gutxi baŕu ele ilen aŕtean izango da".

Euzkera, ele bizia bezela beintzat, eskutatzen ari da, iges, dagi gure aŕtetik, bai dijoakigu, ¿nora baña? Geyago etoŕiko ez dan alderantz, eriotzaren magal otzera, betiko ilobira.

Altube'taŕ Seber jaunak "La vida del euzkera" bere idatzi irakurgaŕian, gure elia orain dagoan eriolaŕiraño ekaŕi duten zegaitiak azaltzen ditu.

Zegaiti abetako batzuek guk zuzendu ezin gindezkenak dira. Esaterako France-eliak eta España-eliak su biren erdian aŕtuta, alde bietatik egiten dioten guda gogoŕa.

Eŕdera abek biak sendoak eta zabalak bai dira! Mundu gustian zabalduak eta miloi askok itz-egiteko erabiltzen dituztenak.

Gizaldi luzetan, batek Ipaŕ aldetik, eta besteak Ego aldetik, eŕdera abek biak gure euzkerari egiten ari diran guda gogoŕean, gure euzkerak pitinga-pitinga luŕa galdu du, geroago ta estuago egiten ar. da bere luŕean, inori kendugabeko bere luŕ onetan.

Baña euzkerari ilobira bultzatzen dioten zegaitien aŕtean bai daude beste batzuek, geuk nai ba'gendu, kenduko edo ezereztuko ginduzkenak, baña orain aŕte euren kaltez ezer ere egin ez degunak.

Bata da euzkerari, Euzkadi'ko ume ikastola danetan egiten zayon guda ankeŕa. Gure ikastola danetan, euzkerari auŕian artu ta txakuŕ amoŕatuak baño odolkiroago jaŕaitu diote. Itz zikiñai, gezuŕa esateai, eta beste ezer gaiztakeriri jaŕaitu ez zayon bezela.

Ez dute kendu ikastoletatik eta umien ezpañetatik españazale irakasleok, j'gaz asi ta ŕ'gaz amaitzen dan itz itxusi ori ¡Ez ba! Belaŕimotzen eta mahomataŕen aŕtean asmatua noski.

Aizgoŕi'ko artzayak asmatutako itzen bat izan ba'litz, beste modutara jaŕaituko zioten.

Gu beintzat, "Etzion gaizki"! itzetik ortzera esaten gendualako, bein baño sariggotan zigortuak izan giñan umetan eskolan, itz txaŕ bat ba'zan bezela.

Euzkerari guda egiteko lan onetan, Euzkadi'ko eskola danak berdiñak izan dira. Ezin gentzake bat bakaŕa ere apartatu. Danak berdiñak. Bai lateŕiaren ikastolak, bai udalarenak, bai diputazioko auzo-ikastolak, bai euzkel eŕietan ditugun eta ain ondo ordaindu ditugun prale ta mojen ikastetxe guzti-guztiak ere.

Lekaide ta lekaime oyek gure eŕiari egin dioten kaltea ezin esan bestekoa da. Eurak galdu dute euzkera aundiki aŕtean, eurak dirala ta, euzkera aundikien aŕtean erabiltzea meresi ez, duan izkera dala, siñistu du gure eŕiak.

Ikastetxe oyek gure aŕtean egin duten lanik ertenena España-zaletasuna zabaltzea ta euzkera galdu ta ele lotzagaŕitzat eukitzea izan da. Bakoitzari berea. Ez dute eŕu guztia Zamora'tik etoŕitako irakasle belaŕimotzak, ez. Ayena baño eŕua aundiagoa beste abena. Euzkerari bera iltzeko aizto zoŕotza bigunago ta polikiago erabiliaz baŕurago saŕtu diotelako.

Baña abek danak onela diran aŕen, gure euzkerak atzerantz egiten ba'du, geuk, euzkeldunok erabili nai ez degulako da. Euzkera ordez eŕderaz itz egiten degulako.

Egi aundi au ondo ikusia daukagu eŕi euzkeldunetan bizi geran euzkelzaleok. Barkatuko al dirazu, irakuŕle, neuri dagokidan gauzan bat emen aitatzea?

Ara, ni umea nintzanean nere eŕira etortzen ziran irakasle, telegrafista, aduanako, karteru, karabiñeru, eta abaŕ, belaŕimotz guztien umeak, denbora gutxiren baŕuan euzkeraz ikasten zuten eta euzkeraz "egiten" zuten, eta izkeraren bitaŕtez beintzat, geure eŕiari josita gelditzen ziran.

Amaika neskatxo Garcia, Zapater, Portela, Rubianes, Solis, Sanz, Fernandez, Soler eta abaŕ abizendunak, belaŕimotzen umeak, Zamora ta Soria'tik etoŕiak jolastu oi ziran gurekin

"Kia, kia mendijan
Oluak beren tokijan."

eta abaŕ, geuk bezelaxe egiñaz. Nere eŕiko Zubiauŕe kaleko aŕantzalien alabak edo ilobak, edo beŕilobak bai litzan.

Eta euzkera ikasi ta egin oi zuten iñork erakutzi gabe, eŕiko umiakin ibiliaz bakaŕik, eta gañera eurak igeŕi gabe eta batere alegindu gabe.

Au orain ogeitamaŕ urte gertatzen zan nere eŕian, Gipuzkoa'ko eŕitxo batean.

Baña gauŕ neure etxean ikusi det, euzkeraz ikasteagaitik Madrid'tik ekaŕi detan bederatzi urtedun ilobatxo batekin, kalean peskitzan laga ba'nuan, nere ilobatxuak etzuala deusik ere ikasiko.

Eŕi guztiko umiai eskatzen nioen euzkeraz egin zegiotela, noizian bein gozoak ere ematen nizkioen. "Euzkeraz egin gero e? euzkeraz ikastea nai det eta." "Bai andrea" Baña nik burua jiratzen nuanerako, ume danak al zuten bestean erderaz.

Ume onek euzkeraz ikasi al izango zu'du, kalera eŕteten utzi gabe etxean nerekin euki biaŕ izan det, eta onela ikasi du euzkeraz sei ilabetean.

Eta au jaso zait Bizkai'ko eŕi txiki batean, belaŕimotzik ez dagoan eŕi batean, lantegi bat ez dagoan eŕi batean, bizitza danak nekazariak diran eŕi batean, polikan, geu, abeŕtzaleok nagusi geran eŕi batean.

Emendik atera gentzake ogeitamaŕ urtabetan euzkerak egin duan atzerakada.

AŔITOKIETA.

Idazti - Eguna

卐 卐

Euzkadi'n euzkel-idaztizko urijolea biaŕ zala euzkeltzale jakiŕun beti antxiña entzun geutsan. Berak bat baño geyago, ta edeŕetariko gaŕantzitsubak, argiŕaldu dauz; aspaldijon oŕ-emenka ainbat argiŕaltzen dabez, oindiño urijolea ixan dala esateko lainez baña.

Urijolarako baŕiz, argitaltzia ezta naikua, urizkua ixatekotan be, eurija ixatia naikua eztan lez. Urijolarako eurija ixan, eta ugariz ibayai ganezka eragin-biaŕ-ixaten yake, eta idaztiz, idazti-urijolea ixango ba'da argiŕaldu ta uri auzune etxe ta etxekoz idaztijok ganezka-egin biaŕ dabe. Bestelan, iraŕkolan, edo salokijan edo, gelditzen ba'dira, ibayak bere bidez daruan euri-urez egin dauana jazoko da, urijola-barik gelditzia. Berez, idaztijak asko, eri-barik urijolarik ezin da-ta, argiŕaldu biaŕ dira, baña idaztijok edatu biaŕa ezta txikijagua, eta edapenau edapenago eta argiŕalduko diran idaztijak be ugarijago ixango dira. Urijolea, idazti-urijolea ixango ba'da, idazti-edatziak aldintsu-aldintsubak ixan biaŕ dau ba.

¿Zelan jadetsi?

Egija, idazti-urijolau gura dogun baxen ugarija ixango ba'da eŕija euzkeraz irakuŕten, dan baño artezijago, eta arteziz dan baño zaliago ixan-biaŕ da.

Lanau ikastola-lana da batez-be. Ikastolak baña, beintzat osoz ikastolak ikasi ta irakasten bost gaubeki edo egunero igazten dabezanak dira. Onetijaz ganeraguk gura dogunerako, beste ainbat ikastola ixan dagikez. ¿Zegaŕik ez? Batzokijak dirala, etxiak dirala, jayak dirala-ta, batzubetan neguteko gau luziak eta, bestetako udateko eguberdi ostiak dirala-ta, astija gureña da-ta, berau baŕiz eten-barik eta uŕurik emona, ondo baño obeto gondu dagikegu.

Asmuau su ta gaŕ auŕera eruan-biaŕ da, Irakuŕtiak dauan aldiña neuŕgia da. Gaiztuak au ondo dakije, batez-be judaŕak, eta onegaŕik eŕijetan izpaŕingi-jabe ixateko leŕenak-egiŕen dabez.

¿Zegaŕik ez guk euzkeldunak au ikasi ez, ta ikasiŕa iñardu ez? Aiko maikotan ibili-barik, apukuak alde batera jauŕti, eŕderaz edeŕto dakixulako aŕokerija, axe utza, zabaŕtu, ta euzkeraz idazten ekin eta ekin. Ez aiztu, edozertzaz be, ekina nagosi, eta etxe baŕukua danian baŕiz, nagosijagua, orduan bilduŕa emoten dau.

Aurtemin, izpaŕingijan irakuŕi edo dozube Barcelona'n Gorka Deuna'ren jayak ospatu dabezala-ta, "Idazti-Eguna" egin dabela. Egin - bakaŕik ez, idaztiak iñurinez, ondo gondu be bat geyen katalanerazko idaztijak salduta..

Eredu onak jaŕaigaŕi dira, eta Barcelona'ko "Idazti-Eguna" Euzkadi'n be antzaŕtu egin biaŕ dogu, eredu on-ona da-ta.

Idazti-Egun onen eralguntzea azalduten enaz azaŕtuten, onetzaz aŕubak ainbat edo dira, eta eurok egin-biaŕ daben lana da, baña ez uŕengorako itxiŕa, lasteŕ-lasteŕ baño.

TABIRATAŔA.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154 TOLOSA

Donostia - FULY GERRIKUAK - Osatebaguntzatubentzat eta uŕdail-jausi-duentzat

Zarakondegi'tar Joseba (G. B.)

卐

Elantxobe'ko aŕantzale abeŕkide aŕtian uts-une andijenetarikua da egunotan. Entzute andiko "Txopo" aŕantzale auŕenetarikuak geure aŕtetik aguŕ egin dausku.

¡Noŕ zan Zarakondegi'taŕ Joseba geuretzako?

Gixon zintzo, ta aŕantzale aŕgi bat, apala ta bijotz bigunekua, abeŕtzale on, eta zaŕenetarikua, kistaŕ-zaletasunean adihiderik andijenak emoten ebazan aŕantzale maŕekoŕenetarikua.

Bere ezpanetan beti eguan euzko-usaindun abestija, bere goguan abeŕijarentzako maŕetasuna "Txopo" gixajuak batelikotxu bat eban, eta bere ixena "Jel" eukan, makiñatxu bat irain ixan ebazan arerijo amoŕatuakandik bakaldun aldiko "ditadurean", baña berak auŕera beti kementsu, iñori jamonik barik.

Sabin geure irakaslia maŕe-be, maŕe eban eta bere abesti oleŕkijak egunero bere espanetan entzuten ziran.

Eŕi gaxuan jayo nintzan ni
zure il orduban eltzeko
¡Zegaŕik ama eztira itxaŕtzen
zeure semiak ondiño!

Ona emen berak geyen maŕaten eban Sabin-oleŕkija.

Joseba, gixajuak 78 uŕte ixan dauz il orduban, eta ludi onetan itxi dau eun da sei edo saspi uŕte dabezan ama zaŕa.

Benetako iŕun aldija ixan dabe Elantxobe'ko abeŕtzaliok ¡ezta gitxijagorako!

Otoi ba, otoi, Zarakondegi'taŕ Joseba. (Goyan bego) gogo-aldez ain maŕe-ixan genduban gustijok betiko donokija beraz ixan dagijan. Aŕtu sendi ona geure bijotzeko tamal aguŕa. Urtzi'k gura ixan dau, eta gu danok bere eskuban gaukaz.

OGOÑOPE.

Durango ta Velasko'tzaz

Nire ustez Velasko abixenean euzkel-atal bat baño eztogu ikusten, atzizkija bakaŕik, *ko* atzizkija: lenengo atala gustiz eŕderatikua da. Idazkun onetan orixe erakutsi gura dot.

KO atzizkijatzaz lengo egunean naiko esan leuguban: lengo eguneko ixenai beste auxe geŕu biaŕ dautsegu: *Miotako*.

Velasko Velas edo Velaz'tik datoŕana agirija da. Velaz abixena ospetsuba da Nabaŕa'ko edestijan. Belaz de Medrano gudalburu argija daukagu españaŕen atxin jokatu lebana. *Bele* edo *Bela*'tik datoŕana diñuenak euzkeratik datoŕana aldeztuten dabe: gure ustez gardi oŕi ilun-iluna da. Egija da euzkotaŕ abixen aŕtian *Bela* edo *Vela Belaŕ* eta *Bera* napaŕtaŕa aŕunak dirala. Batzuk *Bera* napaŕtaŕ abixena *Bara* edo *Baratz* abixenaz eŕkatuten dabe. Gure ustez baña *Belaŕ* euzkeratikua danaŕen (=bedaŕ) beste gustijak eztira euzkeratikuak, au da *Belaz*, *Vela* ta *Velasko* eztira euzkeratikuak.

Aragon'eko San Juan de la Peña lekaretxian auŕkiŕuten dan ageŕkai baten 1085'gaŕen urtian Sancio Sangi de Aŕiatu'k egiñiko emokunean ziñaldari baten ixen abixenak onantxe irakuŕten dira:

"Eximino Veylaz de Alayza".

Uŕengo urtian berberak auŕeragoko urtian egiñiko emokunea bayeztuten onantxe ixenpetuten dau:

"Scemeno Veilaz de Alaiza"

ta onen ostian

"Jusco Veilaz Salguŕtegi".

¿Nundik ete-datoŕ *Veyla* edo *Veila*? Buru-auste asko ezta biaŕ oŕi ageŕtuteko. *Veyla* edo *Veila* antxiñako *Vegila* edo *Vigila*'tik datoŕ: antxiñako ageŕkayetan era bijetara ageŕtuten da ixen au.

Vigila edo *Vegila*'tik *Vegilaz* edo *Vigilaz* eraldu zan Petrus'tik Petrez, Petriz eta Perez eraldu ziran letz, eta Sancius'tik Sanchez, Sançhiz eta Sanchoiz.

1085'gaŕen urteko ageŕkayan geuk esan dogun gustija erakusten daun ixen bat dogu. Irakuŕi daŕaña:

"Facta carta in mense octobris 16 calend. Novembris regnante Adefonso in Leyon".

Gauza jakiña da eŕomataŕen aldijan gauŕko *Leon* urija *Legio* zala: esku aŕtian darabilgun ageŕkayan *Leyon* da ta gauŕ *Leon*. Oŕ dakusgun gustija *Vigila*, *Vegila* *Vela* ta *Velaz*'egaz eŕkatu dagigun. Antxiñan *Vegila* zan, *Vegila*'tik *Vegilaz* eraldu zan ta *Vegilaz*'tik *Veylaz*, *Veilaz* eta *Velaz*.

Ba-liŕeke *Bele* edo *Bela* "cuervo" ikurpenaz geure abixen-aŕtian ixatia. Baña oŕtik *Velasko* ta *Velaz* eztatoŕtz.

AGAREL.

ZUMARRAGA

EUZKERA, EUZKERA TA EUZKERA.—Auxe da abeŕtzale gustiok beteŕ gustietan ibili beaŕ genduken izkuntza ta zoritxaŕez gutxik dabilkiena, eŕi onean beintzat. Tamala benetan emon geŕtatzen dana, euzkeraz mintzatzen lotsatu egiten dira. Ez dakitela diote! ¿Zeñena eŕua? Lenago irakaslerik ere etzegon eta... ain dala ilabete batzuek Otaegi'taŕ ... apaiz gaste azkaŕa bere etxia ikastola ... ñik irakasle jaŕi zan, amabiko batera ... an eldu ikasliak, eta lengo egun batean galdetzen det. ¿Nola dijoaz ikasliok? Onezkero ¿auŕeratuak egongo dira? eta ... antzuten didate "¡Bai zera! Utzi ... danak. Bat bakaŕik etoŕtzen da. ALEMANA". Oŕa irakuŕle erakuste edeŕa. ¡Alemana'k euzkeraz ikasteko maitasun geyago euzkaldunak baño! Gure euzkera, ... edeŕa, ain aberatsa, ain maitagaŕia ... uleŕtu dezakot, ain maitale gutxi nola du... tuan... ¡¡Negaŕgaŕia benetan!! Abeŕtzaliak dirala diote, baña *abeŕtzalia* ta ... *tzalia* ez dakit nola liteken. Zuen umetxo... euzkel-izen politak esaŕita dauzkatzute eta kanpo... umetxo oyen izkuntza etxian eta ... eŕdera baño ez da, ta beŕen ikastolan ... Kristau ikasbidea euzkeraz ikasi ... tena, eŕderaz erakutsi erazitzen ... Gurasoak, ¿nora begira zaudete? Zuena da eŕua. Euzko-ikastolak beaŕ dira, egia da, baña euzko ikastola oiek jaŕtzeko, euzkeraz ikasteko gogo bizia beaŕago ... ba ez da asko ikastolan egin ... ekin alditxoa, ez bada zuen sendietan ... jaŕaitu egin beaŕ dezute, ta Euzko-Batza... kian ere beaŕ beaŕekoa da, ibiltzen ... baño euzkera piskat geitxuago ibiltzea ... tez ere emakumiak... ba zuen ... eta gañerako aŕtu emanetan eŕdera ... *dolua* besterik ez dezute erabiltzen.

MIREN...

Artua eta babia txikitutzeko makiñak
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Do...

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

Fábrica de escopetas finas de caza. Eizara'ko suizkilu bereziien olea
Agirre y Bastida
EIBAR. — GIPUZKOA

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA